



eurored del deporte

KIROLAREN EUROSAREA

MEMORIA 2007



INDIZEA

1.- SARRERA	3
2.- JARDUERAK	4
2.1.- Teknikak	4
2.1.1.- Aholkularitza.....	4
2.1.2.- Erakundeak antolatutako jarduerak	4
2.2.- Kirol-jarduerak	5
2.2.1.- Lankidetz.....	5
2.2.2.- Erakundeak antolatutako jarduerak	5
2.2.3.- Kiolaren Euro sareko bazkideen jarduerak	5
3.- FINANTZAKETA	8



1.- SARRERA

«Kirola gizon eta emakume bakoitzaren herentziaren zatia da, eta kirol gabezia ezin da konpentsatu», Pierre de Coubertin (Europako Kirolaren Liburu Zuriaren aurkezpenetik hartua).

Iazko aurkezpena egitean, Europako Batasunak kirolaren esparruan eskumen zuzenik ez zuela adierazi genuen, eta egoera hori bera mantentzen da gaur egun ere, Lisboako Ituna oso-osorik berretsi gabe dago eta. Itun horretan, 165. artikulua zuzendu zen, hau da, Europako Batzordeak kirolaren alorrean oinarritzko eskumen-mailak dituela lehenengo aldiz onartzeko idatzi zen artikulua.

Kirolaren Eurosetik adierazi behar dugu Europako Batasunak kirolaren alorrean etorkizunean balizko eskumena izatea oinarrituta egon beharko litzatekeela gizarte-, hezkuntza- eta herritartasun-balioetan, gure erakundeak bere sorreratik bertatik aldarrikatzen duen bezala.

Ildo horretan, beharrezko zaigu adieraztea Europako Batasunak 2007. urteko uztailean Europako Kirolaren Liburu Zuria izenekoa onartu zuela. Liburu hori Europako Batasuneko kide diren estatuetan eta kirolaren alorrean ari diren gobernuz kanpoko Europako beste erakunde batzuetan erreferentzia izango da kirolaren inguruko politikak zehazteko, baldin eta Lisboako Ituna osorik berresten bada.

Nabarmendu behar dugu Eurosarea erakundeak antolatzen dituen jardueren helburuak koherentzian daudela aipatutako liburuan aditzera ematen diren helburuekin. Gauzak horrela, kirolak gizartean betetzen duen eta etorkizunean ere beteko duen egitekoa oinarrituta dago osasuna jarduera fisikoaren bitartez hobetzeko duen garrantzian, dopinaren aurkako borrokan, kirolak hezkuntzan eta prestakuntzan duen egitekoa optimizatzean, kirolaren bidez boluntarioen eta herritar aktiboen parte-hartzea sustatzean, gizarteratzean, gizartean txertatzean eta aukera-berdintasunean, arrazismo eta indarkeriaren prebentzioan eta arrazismo eta indarkeriaren aurkako borrokan, beste leku batzuekin balioak elkarri trukatzeko, eta garapen iraunkorraren sustapenean.

Kirolak, gizartean betetzen duen eginkizun horrez gain, oihartzun ekonomiko handia du, gero eta nabarmenago gainera, eta zenbaitetan lagungarria izan daiteke eskualdeak eta tokiko komunitateak gara daitezeko.

Eursoareko bazkideok uste osoa dugu kirolaren eginkizuna horixe dela, eta, horrez gain, jarduera guztiak bide horretan bideratzen saiatzen gara. Gure eginkizuna xumea izango da, ziur aski; baina, harro gaude liburuan aldarrikatzen diren helburuekin bat egiten dugulako eta bide horretatik jarraitzen dugulako.



2.- JARDUERAK

Atal honetan, esparru teknikoan eta kirol-esparruan egindako jarduerak laburtuko ditugu, eta eranskinean informazio zehatzagoa emango dugu.

2.1.- Jarduera teknikoak:

Kirolaren Eurosareak bi esparrutan egin ditu jarduera teknikoak:

2.1.1.- Aholkularitza:

- Baiona-Donostia Euskal Eurohiriaren proiektuaren aholkularitza: kirolaren esparrua garatzeko, kargu politiko eta teknikoekin hainbat lansaio.
- Muga arteko kirol-lankidetzaren aholkularitza: zikloturismoan, errugbian, xakean, izotz-hockeyan, arraunketan, eskubaloian eta emakumezkoen saskibaloian San Sebastián Bera Bera R.T., Gros Xake Taldea eta C.H.H. Txuri Urdin klubena eta Aviron Bayonnais de Bayonne, Echiquier Bayonne – Adour, Hormadi de Anglet, Anglet Olympique Handball, Oceanic Karaté Club Biarritz, Ur Ikara eta Anglet Côte Basque Basket klubena arteko lankidetzaren aholkularitza.

2.1.2. Berezko jarduerak:

- Kudeaketa Batzordea, Madrilen, Kirol Kontseilu Gorenaren egoitzan batzartua, 2007ko otsailaren 23an.
- Mugaz gaindiko Kirol Lankidetzari buruzko VIII. Mintegia, Punta Umbrían egina (Huelva – Andaluzia), 2008ko otsailaren 15ean eta 16an.
- Ohizko Batzar Nagusia, Punta Umbrían batzartua (Huelva – Andaluzia), 2008ko otsailaren 15ean
- Kudeaketa Batzordea, Punta Umbrían batzartua (Huelva – Andaluzia), 2008ko otsailaren 15ean.



2.2.- Kirol-jarduerak:

Kirolaren Eurosareak hiru esparrutan egin ditu kirol-jarduerak:

2.2.1.- Lankidetzak:

- Bidasoa/Txingudi kontsortzioarekin (Irun, Hendaia, Hondarribia) lankidetzak, kirol-jardueren programaren garapenean.
- Baiona-Donostia Euskal Eurohiriarekin lankidetzak, klubaren arteko hitzarmenen bitartez kirol-harremanak sustatzeko.
- Bera Bera R.T., Gros Xake Taldea eta C.H.H. Txuri Urdin klubekin hitzarmenak, kirol-jardueren programak garatzeko.

2.2.2.- Erakundeak antolatutako jarduerak:

- VI. Eurokirola, 2008ko otsailaren 14an, 15ean, 16an eta 17an Punta Umbrían (Huelva – Andaluzia) egindako kirol-topaketa, modalitate hauetan: hondartzako futbola, hondartzako boleibola, orientazio-lasterketa, piraguismoa, arkuzko tiraketa eta gimkana.

2.2.3.- Kirolaren Eurosareko bazkideen jarduerak:

2.2.3.1. Andaluziako Junta, Turismo, Merkataritza eta Kirol Saila.

Kirolaren Eurosarearen Kudeaketa Batzordeak eta Batzar Orokorrak egindako bileretan Andaluziako Juntak parte hartzeaz gain, aurrean (2008ko otsaila) VI. Eurokirola ere antolatu da Punta Umbrían (Huelva – Andaluzia), 2008ko otsailaren 14an, 15ean, 16an eta 17an, eta parte hartu dute mugaz gaindikoko eskualdeetako selekzioek, 1991. eta 1992. urteetan jaiotako 6 mutil eta 6 neskek osatuta (kadete kategoria).

Aipatutako topaketetan bururatu ziren kirol-jarduerak modalitate hauen bidez egin ziren kirol-esparruan: hondartzako futbola, hondartzako boleibola, orientazio-lasterketa, piraguismoa, arkuzko tiraketa eta gimkana. Era berean, kultur ekitaldiak antolatu ziren, hala nola Los Enebrales izeneko eremura egindako bisita.



Beste alde batetik, aurren ere, Punta Umbrían (Huelva - Andaluzia), Mugaz gaindiko Kirol Lankidetzari buruzko VIII. Mintegia antolatu da, 2008ko otsailaren 15ean eta 16an. Mintegian, Kirolaren Euro sareari atxikita dauden erakundeen ordezkariak parte hartu dute, eta baita Andaluziako eskualde horretako klubek, udalek eta tokiko eta eskualdeko elkarteek ere.

Halaber, Andaluziako Juntaren Turismo, Merkataritza eta Kirol Sailak eta Portugaleko Kirol Institutuak, Algarve Eskualdeko Ordezkaritzaren bidez, Espainiaren eta Portugalen artean dagoen hitzarmenari jarraituz –bi herrialdeek Huelvan, 1996-12-4an izenpetu zuten MUGAZ GAINDIKO ITUNAREN bidez berretsia–, XII. KIROL TOPAKETA ANDALUZIA-ALGARVE antolatu zuten, Almonte hirian (Huelva), ekainaren 15ean, 16an eta 17an.

Kirol-topaketa Almonteko polikiroldegiko instalazioetan egin zen. Ekitaldian, Kirol Jarduera eta Sustapeneko Zuzendaritza Nagusiak koordinazio-lanak egin zituen; gauzatze-lanetan aritu ziren Huelvako Turismo, Merkataritza eta Kiroleko Lurralde Ordezkaritza, Empresa Pública Deporte Andaluz S.A. (EPDASA) sozietatea eta Almonteko Udala; eta Topaketan egin ziren kirol-jarduerekin zerikusia duten Andaluziako kirol-federazioek eta Huelvako Lurralde Diputazioak beren lankidetzak eskaini zuten. Topaketei hasiera emateko zeremonia ostiralean egin zen, mutil eta neska guztien arteko topaketa errazteko jolas-jardueren egitarau batekin abiarazita.

Guztira 304 parte-hartzailek jardun zuten topaketetan, kirolariak, entrenatzaileak eta ordezkariak barnean hartuta. Kirolari neska zein mutilak, 1993. eta 1994. urteetan jaiotakoak, modalitate hauetan aritu ziren: emakumezkoen saskibaloia, gizonezkoen saskibaloia, gizonezkoen futbola, emakumezkoen areto-futbola, hiri-milia, tenisa, mahaiko tenisa eta igeriketa. Gimnasia kirol-jardueran aritzeko, 1995tik 1999ra bitarteko jaiotza-urteak ezarri ziren. Beste alde batetik, igeriketa modalitatean, mutil eta neska ezinduen parte-hartzea nabarmendu behar da.

Topaketaren bigarren egunean, bisita kulturala antolatu zen Doñana Parke Nazionalen kokatuta dagoen El Acebuche Bisitarien Etxera, eta azken egunean, jarduerak hondartzan egin ziren, modalitate hauek, zehazki: hondartzako eskubaloia, hondartzako futbola, hondartzako boleibola eta *ultimate*.



2.2.3.2. Bidasoa Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa:

Description des activités / Jardueraren deskribapena / Descripción de la actividad	Membres participants / Parte hartu duten bazkideak / Socios participantes	Lieu - Date / Lekua - Data / Fecha - Lugar	Autre information d'intérêt / Bestelako informazio interesgarria / Otra información de interés
Bidasoa-Txingudiko Eskola Kirolaren Jaia	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Jostaldi pilotalekua, Hondarribia / 2008ko maiatzaren 31	Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalen lankidetzaz
Bidasoako itzulia	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Gipuzkoa, Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako errepideak. Etapak: Igantzi, Irun, Hondarribia, Hendaiak / maiatzaren 9tik 12ra	Bidasoa Itzulia Elkarrean antolatuta.
Txingudi Korrika	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Irun, Hondarribia eta Hendaiako errepideak / martxoaren 11	Bidasoa Atletiko Taldeak antolatuta.
Bidasoa ibaiaren nazioarteko jaitsiera aletekin	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Bidasoa ibaiaren urak eta Txingudiko Badia / apirilaren 22a	Izurdek antolatuta, Urpean-en lankidetzaz.
Eskubaloi-selektzioen haur- txapelketa	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Hondarribiko Hondartza polikiroldegia / apirilaren 8a	Hondarribi Kirol Taldeak antolatuta.
Expo-Golf azoka	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Euskal Kostaldeko Azoka Esparrua eta inguruak / uztailaren 13tik 15era	Angel Dosil Crespok antolatuta
Neguko bela-txapelketa / Atunaren arrantzaren Txingudi Kopa / Belaontzietako Txingudi Kopa	Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoa	Txingudiko Badia eta itsas ingurunea / 01-7, 02-18, 03-11, 04-01, 04-15 / uztailaren 14a eta 15a / urriaren 27a	Hondarribiko Klub Nautikoak eta Club Maritime Hendaye Txingudik antolatuta.

2.2.3.3. Consell Comarcal l'Alt Empordà:

Descripció de l'activitat / Descripción de la actividad / Jardueraren deskribapena	Socis participants / Socios participantes / Parte hartu duten bazkideak	Lloc - Data / Fecha - Lugar / Lekua - Data	Altra informació d'interès / Otra información de interés / Bestelako informazio interesgarria
Oinarri Futbolaren XI. Nazioarteko Saria	25-40	Porbou	



3.- FINANTZAKETA

Aipatutako ekintza edo jarduera horiek guztiak Kirolaren Euroareari lotutako erakunde, enpresa, klub eta entitateek egindako ekarpenen bidez finantzatu dira (bai zuzeneko diru-ekarpenen nahiz instalazioen bitartez):

Gipuzkoako Foru Aldundia
Andaluziako Junta - Turismo, Merkataritza eta Kirol Saila
Portugaleko Kirol-Institutua - Algarveko Eremuko Ordezkaritza
Bidasoa Txingudi Mugaz Gaundiko Konsortzioa
Consell Comarcal de L'Alt Empordà
Isla Cristinako Udala
Sotavento Algarvio Elkarte
Aldeamentos Pedras del Rei
Bera Bera R.T.
Aviron Bayonnais
Donostia Baiona Euskal Eurohiria
Hormadi
C.H.H. Txuri Urdin
Gros Xake Taldea
Echiquier Bayonne – Adour
Anglet Olympique Handball
Oceanic Karaté Club Biarritz
Anglet Côte Basque Basket
Ur Ikara



eurored del deporte

